**2017-06-27ko OHIKO UDALBATZA**

Irurako udaletxean, 2017ko ekainaren 27an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

**LEHENENGO GAIA**
**AURREKO AKTAK ONARTZEA (2017-05-30).**

2017ko maiatzak 30eko aktaren zirriborroa aurkeztu da.
Akta aho batez onartu da.

**BIGARREN GAIA**
**ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2017/90 DEKRETUTIK 2017/117 DEKRETURA ARTE.**

Alkateak 2017/117 dekretutik 2017/138 dekretura artekoen berri eman dio Udalbatzari.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

( Badago eztabaida ).

**HIRUGARREN GAIA**

**IRURAKO UDALEKO 2016KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA JAKINARAZTEA.**

**Jakinarazten da agiri hau: 2017ko maiatzaren 31ko 94/17 Alkatearen Dekretuaren bitartez, onartu da 2016ko Udal Aurrekontuaren likidazioa:**

"Udal honen 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

**EBATZI DUT**

**Lehena.-** Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

| | | |
|---|---|---|
| 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2016-12-31n: | | +337.810,44 |
| | | +186.692,68 |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2015-12-31n: | | |
| Aurrekontuko zordunak : | 136.825,45 | |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 49.700,90 | |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak: | 166,33 | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2015-12-31n: | | -120.534,69 |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 13.039,09 | |
| Sarreren aurrekontuko hartzekodunak: | 0,00 | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | 107.608,44 | |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | -112,84 | |
| 4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3): | | +403.968,43 |
| 5.- Saldo kobragaitza : | | -80.699,14 |
| 6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5): | | +323.269,29 |
| 7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina: | | 0,00 |

| | |
|---|---|
| 8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7): | +323.269,29 |
| 9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | +85.076,20 |
| 10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: | -32.376,97 |
| 11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: | 63.000,00 |
| 12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: | 0,00 |
| 13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12): | +115.699,23 |
| 14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: | 75.674,11 |
| 15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak: | 142.498,75 |
| 16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15): | 218.172,86 |

**Bigarrena**.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari jakinaraztea zail edo kobragaitzak diren eskubideak zehaztatzeko irizpideak hauek direla:
-Joan den urteko ekitaldi ekonomikoan kobratzeko eskubideetatik ordaindu gabe dagoen kopurua %50ean murriztuko dela.
-Duela bi urteko edo gehiagoko ekitaldi ekonomikoetan, kobratzeko eskubideetatik ordaindu gabe dagoen kopurua %100ean murriztuko dela.

**Laugarrena.-** Dekretu honi eransten den Idazkari Kontu-hartzailaren txostenaren arabera Udalbatzari jakinarazten da hau: Likidazio honek betetzen duela aurrekontu egonkortasunari, finantza iraunkortasunaren araudia eta gastu araua ere.

**Bostgarrena**.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran."

Eta udalbatzak jakinaren gainean geratu da.

**LAUGARREN GAIA**

**GARAJE BAT ENPRESAREN LUR LAGAPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Alkatearen 2017ko ekainaren 7ko Dekretuaren bidez udal-lizentzia eman zaio Bat Garajeari, Ibaiondo Bailara 11 zenbakiko kanpoko partzela ixteko ibilgailuentzako aparkalekua jartzeko. Lizentziaren baldintzetako bat da Udalak 21,10 m2-ko lursail bat doan laga dezala zuzkidura publiko hauetarako: espaloia eta bidegorria. Hori guztia 2012ko maiatzaren 22ko Irurako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra betez.

Martin Leunda Imaz eta Maria Izaskun Liceaga Arrospide lursail honen jabe indibisoak dira:

Pabiloi industrialaren solairu nagusian dagoen lokal industriala Irurako jurisdikzioaren pean, Madrid-Irun errepide nazionalaren bazterrean; mugakide hauek dituena: iparraldean, Teodoro Uria-ren finka; hegoaldean, Uria, Hondarzabal eta Arin jaunentzako bidea komuna; ekialdean, ataria, eta, mendebaldean, Uria eta Arín jaunen etxartea edo bidea. Gaur egun 394,70 m2.- eraikiak dauzka. Eranskin bat dauka : 118 m2 ataria edo lursaila aurreko aldian. %90ko parte-hartzaile kuota dagokio.

Izen-ematea: 1206 liburukia, 15 liburua, Tolosako 1. Jabetza Erregistroko 700 finka.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

Por Decreto de Alcaldía de 7 de junio de 2017, se ha concedido licencia municipal a Garaje Bat para cierre de parcela exterior con destino a aparcamientos de vehículos en Ibaiondo Bailara, 11. Entre el condicionado de la licencia está la cesión gratuita a este Ayuntamiento de una superficie de 21,10 m2 con destino a dotaciones públicas: acera y bidegorri. Todo ello, de acuerdo con el Plan General de Ordenación Urbana de Irura de 22 de mayo de 2012.

D. Martin Leunda Imaz y Dª. Maria Izaskun Liceaga Arróspide son propietarios indivisos de la siguiente parcela:

Local industrial en planta principal del pabellón industrial en jurisdicción de Irura, al borde de la carretera nacional Madrid a Irun que linda: Norte, finca de Teodoro Uria; Sur, camino común propiedad de los Sres. Uria, Hondarzabal y Arin; Este, antepuertas y Oeste, callejón o camino de los Sres. Uria y Arín. En la actualidad tiene una superficie de 394,70 m2 construidos. Lleva como anejo la antepuerta o terreno en la parte delantera de 118 m2. Se le asigna una cuota de participación del 90%.

Inscripción: En el registro de la Propiedad de Tolosa nº 1.Tomo 1206, Libro 15, finca 700.

Ante ello, la Corporación , acuerda por unanimidad de los presentes , lo siguiente:

ACUERDO

1.-Doako lagapena onartzea, lursail honen hirigintzako zuzkidura publikorako:

21,10 m2-ko lursail angeluzuzena; mugakide hauek dituena: iparraldean, Teorodo Uriaren finka; ekialdean, Irun-Madrilgo errepide nazionala, orain udal-zerbitzuko bidea; hegoaldean, Uria, Ondarzabal eta Arín jaunentzako bide komuna, eta, mendebaldean, pabiloi industrialaren ataria.

Balioetsi da lagapena 84,40 eurokoa izango dela.

Lursail nagusiaren izaerak orain dagoen bezala jarraitzen du aurreko aldearen ataria edo lursail izan ezik. Bere azalera 96,90 m2 izango du .

2.- Lagapenaren gastu guztiak (notarioa, erregistroa, zergak…), Udalaren kargura izango dira esklusiboki.

3. Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkate-lehendakariari baimena ematea lagapen honen eskritura publikoa notarioaren aurrean sinatzeko edo xede horrekin beste edozein egintza edo kudeaketa burutzeko.

( Badago eztabaida).

1º.-Aceptar la cesión gratuita y con destino a dotaciones pública urbanísticas de la siguiente parcela:

Parcela de terreno rectangular en jurisdicción de Irura, que linda: Norte, finca de Teodoro Uria, Sur, camino común propiedad de los Sres. Uria, Ondarzabal y Arin; Este, carretera general Irun-Madrid, ahora vial de servicio municipal y Oeste, la antepuerta del pabellón industrial. Tiene una superficie de 21,10 m2 .

Se valora la presente cesión en 84,40 euros.

La parcela matriz, mantiene su descripción actual , menos la antepuerta o terreno de la parte delantera que tiene una superficie de 96,90 m2.

2.- Todos los gastos de la presente cesión (notariales, registrales, impuestos…) serán a cuenta exclusiva de este Ayuntamiento.

3.- Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente Ana Jesús Leunda Gurruchaga para la firma de la presente cesión en escritura pública ante Notario y para la realización de cualquier otro acto o gestión con dicha finalidad.

## BOSGARREN GAIA

## EUSKAL FORGING S.L. ENPRESAREN ETA BESTE BATZUEN LUR LAGAPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkatearen 2017ko ekainaren 8ko Dekretuaren bidez udal-lizentzia eman da Ibaiondo Bailara 11 zenbakiko lursail pribatua urbanizatzeko eta bertan

Por Decreto de Alcaldía de 8 de junio de 2017, se ha concedido licencia municipal para urbanización de parcela privada con destino a aparcamientos de vehículos en Ibaiondo Bailara, 11. Entre

ibilgailuentzako aparkalekua jartzeko. Lizentziaren baldintzetako bat da Udalak 54,00 m2-ko lursail bat doan laga dezala zuzkidura publiko hauetarako: espaloia eta bidegorria. Hori guztia 2012ko maiatzaren 22ko Irurako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra betez.

Euskal Forging S.L., Mayor 13 Irura S.L., Angel Ugarte Carmena eta Jesús Zubeldia Eguibar jaunak lursail honen jabe indibisoak dira:

Irurako jurisdikzioaren pean dagoen lursaila; mugakide hauek dituena: iparraldean, Emua S.A.-ren finka; hegoaldean, finka bereizia eta Uria, Hondarzabal eta Arin jaunentzako bidea edo zerrenda komuna; ekialdean, Irun-Madril errepide orokorra (orain, udal-zerbitzuko bidea), eta, mendebaldean, Uria eta Arín jaunen etxartea edo bidea. Gaur egun 615,70 m2.-ko azalera dauka.

Izen-ematea: 1359 liburukia, 16 liburua, Tolosako 1. Jabetza Erregistroko 294 finka.

Hori dela eta, Udal batzak, aho batez , onartu du akordio hau:

ERABAKIA

1.-Doako lagapena onartzea, lursail honen hirigintzako zuzkidura publikorako:

54,00 m2-ko lursail angeluzuzena; mugakide hauek dituena: iparraldean, Emua S.A.-ko finka; ekialdean, udal-zerbitzuko bidea; hegoaldean, Uria, Ondarzabal eta Arín jaunentzako bide edo zerrenda komuna, eta, mendebaldean, finka bereizia. Gaur egun, Ibaiondo Bailarako 11 zenbakian dago.

Balioetsi da lagapena 162 eurokoa

el condicionado de la licencia está la cesión gratuita a este Ayuntamiento de una superficie de 54,00 m2 con destino a dotaciones públicas: acera y bidegorri. Todo ello, de acuerdo con el Plan General de Ordenación Urbana de Irura de 22 de mayo de 2012.

El Grupo Euskal Forging S.L., Mayor 13 Irura S.L., D. Angel Ugarte Carmena y D. Jesús Zubeldia Eguibar son propietarios indivisos de la siguiente parcela:

Parcela de terreno en jurisdicción de Irura, que linda: Norte, finca de Emua S.A.; Sur, finca segregada y camino o faja común para los Sres. Uria, Hondarzabal y Arin; Este, carretera general Irun-Madrid, ahora vial de servicio municipal y Oeste, callejón o camino de los Sres. Uria y Arín. En la actualidad tiene una superficie de 615,70 m2 .

Inscripción: En el registro de la Propiedad de Tolosa nº 1.Tomo 1359, Libro 16, finca 294.

Ante ello, la Corporación , acuerda por unanimidad de los presentes , lo siguiente:

ACUERDO

1º.-Aceptar la cesión gratuita y con destino a dotaciones pública urbanísticas de la siguiente parcela:

Parcela de terreno rectangular de 54,00 m2 que linda: por Norte con finca de Emua S.A., Este con vial de servicio municipal, Sur, con camino o faja común para los Sres. Uria, Ondarzabal y Arín y por Oeste con finca segregada. En la actualidad está localizada en Ibaiondo Bailara, 11.

Se valora la presente cesión en

izango dela.

Lursail nagusia 561,70 m2-ko azalerarekin geratu da eta mugakide guztiak mantentzen ditu, ekialdekoa izan ezik, udal-zerbitzuko bidearekin eta lursail bereiziarekin muga egiten duena.

2.- Lagapenaren gastu guztiak (notarioa, erregistroa, zergak…), Udalaren kargura izango dira esklusiboki.

3. Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkate-lehendakariari baimena ematea lagapen honen eskritura publikoa notarioaren aurrean sinatzeko edo xede horrekin beste edozein egintza edo kudeaketa burutzeko.

162 euros.

La parcela matriz, resta con una superficie de 561,70 m2 y mantiene todos sus linderos anteriores, menos por el Este que linda con el vial de servicio municipal y parcela segregada.

2.- Todos los gastos de la presente cesión (notariales, registrales, impuestos…) serán a cuenta exclusiva de este Ayuntamiento.

3.- Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente Ana Jesús Leunda Gurruchaga para la firma de la presente cesión en escritura pública ante Notario y para la realización de cualquier otro acto o gestión con dicha finalidad.

(Badago eztabaida).

**SEIGARREN GAIA**

**IRURAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO FORU DIPUTAZIOAREN ARTEAN BERE ORDEZKAPEN ZERRENDA ERABILTZEKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak aukera sortu du bere legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen udalek kontsultatzeko. Bere helburu ordezkaritza egiaztatzea hirugarren pertsonen izenean egiten diren jarduketan da.

Bai administrazio prozedurari buruzko araudiak bai araudi zerga-betebeharrek ordezkaritzaren egiaztapena eskatzen dute hirugarren pertsonen izenean jarduteko.

Hori dela , Udalbatzak aho batez , hau onartu du:

ERABAKIA

Lehena.- Onartzea, D-7 eranskina “ Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta “ izenekoa, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako Lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren baitan.

Bigarrena.- Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkate-lehendakariari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko Irurako Udalaren izenean edo xede horrekin beste edozein egintza edo kudeaketa burutzeko.

**ZAZPIGARREN GAIA**

**IRURAKO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEAN INFORMAZIO, ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA ELEKTRONIKOKO ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Estatuko Administrazio Orokorrak 2017ko martxoaren 24an lankidetza berri bat sinatu dute , administrazio elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri eramateko.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141.1.c) artikuluak ezartzen du gainerako administrazioei eman behar dietela haien eskumenak baliatuz egiten duten jarduerari buruz edo herritarrek arlo bati buruzko informazio osoa eskuratu ahal izateko behar duten informazioa.

Horretarako Eusko Jaurlaritza onartu du Hitzarmen hau: alde batetik , sinatzaileek ematen dituzte zerbitzu elektronikoen aprobetxamendu komuna egin dezaten eta, bestetik , informazio truka dezaten beraien artean.

Hitzarmen helburu nagusia edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko hiritarren eskubidea bermatzea.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Irurako Udalaren artean aipatu den lankidetza- hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkate-lehendakariari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko Irurako Udalaren izenean edo xede horrekin beste edozein egintza edo kudeaketa burutzeko

**ZORTZIGARREN GAIA**

**IRURAKO UDALAREN ETA IZENPE S.A. ENPRESAREN ARTEAN IDENTIFIKATZEKO ETA SINATZEKO BALIABIDE ELEKTRONIKOAREN BIDEZ HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Izenpek sortu du zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmena, Udalen eta Izenperen artean sinatua izateko eta Udalek erregistro gisa funtziona dezaten B@kQ identifikazio sistema elektronikoak igortzeko.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez , hau onartu du :

ERABAKIA

Lehena.-Izenperen eta Irurako Udalaren artean aipatu den lankidetza-hitzarmena sinatzea.

Bigarrena.- Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkate-lehendakariari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko Irurako Udalaren izenean edo xede horrekin beste edozein egintza edo kudeaketa burutzeko.

**BEDERATZIGARREN GAIA**

**2017RAKO EUSKAL FONDOAREN DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Euskal Fondoaren kide izana eta 2017ko diru-laguntzen programak ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du hau:

AKORDIOA

1.-Programa hauek laguntzea:

- Melchorita (Nicaragua) komunitatean ur edangarria hornitzeko sistema eraikitzea II. Fasea : 1.500 euro.
- Saharako errefuxiatu kanpalekuetako garraio – azpiegitura laguntzea: 1.500 euro.

2.-Diru-laguntza hauek ordaintzea.

**HAMARGARREN GAIA**

**IRAKASKUNTZAKO ERAKUNDEENTZAKO EKIMENAK OSPATZEKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Kultura, Euskara, Gazteria eta Partaidetzari buruzko Informazio Batzordean, 2017ko maiatzaren 23an eginiko bileran, irakaskuntzako erakundeentzako 2017ko diru-laguntzak onartzea proposatu da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA:

Lehenengoa.- Erakunde hauentzako 2017ko diru-laguntzak onartzea :

-Ibilaldia: 160 €.
-Araba Euskaraz : 160 €.
-Kilometroak : 160 €.
-Nafarroa Oinez: 260 €.
-Herri Urrats: 260 €.

Bigarrena.- Onartutako diru-laguntzak zuzenean ordaintzea, 2017ko Aurrekontuaren partida honetatik: 1.0000.481.335.00.00.2017.

**HAMAIKAGARREN GAIA**
**EUSKALGINTZAKO ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Euskalgintzako erakunde batzuk diru-laguntza eskatu diote Udalari. Gaia aztertu ondoren, Kultura, Euskara, Gazteria eta Partaidetzari buruzko Batzorde Informatiboak, 2017ko maiatzaren 23an eginiko bileran, aldeko proposamena egitea erabaki du.

Halaber, diru-laguntza hau zuzeneko emakida da eta Udalaren 2017ko aurrekontu orokorrean izenez esleituta dago.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA:

1.- Galtzaundi Euskara Taldeari 1.000 euroko diru-laguntza ematea.

2.- Banaiz Bagara erakundeari 500 euroko diru-laguntza ematea.

3.- Onartutako diru-laguntzak zuzenean ordaintzea, 2017ko Aurrekontuaren partida honetatik: 1.0000.481.335.00.00.2017.

**HAMABIGARREN GAIA**
**EUSKARAZKO HEDABIDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udal honek euskararen erabilera soziala suspertu nahi du. Ildo horretatik, 28 kanala dugu Tolosaldeko euskarazko komunikabidea. Telebista, irratia eta webgunea dira 28 kanalaren euskarriak, eta eduki guztiak euskara hutsean eskaintzen dira

Gainera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 legearen 7.2 artikuluaren arabera, udalen berezko eskumenak dira, eskumen horretatik eratorritako ahalmen eta funtzioekin batera, haien lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzea eta erabilera dinamizatzea (…) edo

beste pertsona edo erakunde batzuk euskara sustatzeko eta dinamizatzeko burutzen dituzte jardueren finantzaketan laguntzea.

Bestalde, Irura Udalaren 2017ko aurrekontuan 2.000 euroko kreditua berezia dago 28 kanalarentzako partida honetan: 1.0000.481.335.00.00.2017.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez hau onartu du:

LEHENA:- Onartzea hitzarmen bidez 2.000 euroko diru-laguntza hori ematea, aipatu den helburuarekin.

BIGARRENA:- Irurako Udaleko alkate den Ana Jesús Leunda Gurruchaga andreari baimena ematea hitzarmen hori Udalaren izenean sinatzeko eta helburua betetzeko beharrezkoa den beste edozein izapide egiteko.

## HAMAHIRUGARREN GAIA

## 2017ko HERRIKO JAIEN EGITURA ETA AURREKONTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Kultura Informazio Batzordeak 2017ko ekainaren 20ko bileran onartu zituen San Mielak 2017 herriko jaien egitaraua eta aurrekontua. Aurten, herriko jaiak irailaren 22tik urriaren 1era bitartean ospatuko dira, eta, ondoren, urriaren 8an erretirodunek haien eguna ospatuko dute. Herriko jaien aurrekontua 40.000 eurokoa izango da.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez erabaki du onartzea.

(Badago eztabaida).

## HAMALAUGARREN GAIA

## KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

2017. EKITALDIAN 1. HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA

"2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ekarri du batez besteko epea kontzeptua (OBE). Kontzeptu honek azaltzen du zor komertziala ordaintzeko erabili den denbora edo izan den atzerapena. Horrela Administrazio Publiko guztiek, gardentasun-ariketa berri batean, ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute. Atxikita dauden orrietan Irurako Udalari 2017ko 1. hiruhileko ordainketa epeari buruzko txostenak jakinarazten dizkizuet.

Horren laburpena hau da:

-1. hiruhileko epea: -8,03 EGUN.

Kopuru negatiboa agertzeak adierazi nahi du jarritako epean baino denbora gutxiagoan ordaintzen direla fakturak. Kopuru positiboak, aldiz, epe luzeagoan ordaintzen direla esan nahi du.

Kasuren batean positibo agertuko balitz ere, lege barruan egongo ginateke 30 egunera iritsi bitartean.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## HAMABOSGARREN GAIA

**GALDE-ERREGUAK**.- Gai hauek jorratu dituzte:

**a)** Peoi Kaleko Brigadarako lan poltsari buruz: uste izan zen legedia osorako sortu zela lan poltsa, baina zerrenda amaitzen ari dela eta komenigarria da berriz lan poltsa berria osatzea eta aukera eman guztiei aurkezteko eta erabaki da deialdia berria egitea. Bitartean orain dagoen langile bati izendapena luzatu zaio, lan poltsa berria sortu arte. Dokumentazioa eta oinarriak bidaliko zaizkie EH Bildu taldeei.
**b)** Beste deialdia egingo da. Oraingo eraikin garbitzailea M. C. Olano jubilatuko da (erretiro partziala) eta errelebo kontratua egin behar da (3 edo 4 urte). Horregatik deialdi berria egingo da pertsona bat aukeratzeko. Gai honetan dokumentazioa bidaliko da.
**c)** Denok dakizuenez aurtengo aurrekontuan dago kreditua kalea garbitzeko makina bat erosteko eta espedientea hasiko da. Dokumentazioa bidaliko da ere.

**OHARRA: Eztabaida osoa dago ezarrita www.irura.eus . udala – udalbatzak**.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:50ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA IDAZKARIA